

ZARTU GABE EZIN BIZI (OROIPENAK)

Bizente Barandiaran

Auspoa. 1980

RIEV. Revista Internacional de los Estudios Vascos

Año 40. Tomo XXXVII. N.º 1 (1992), p. 175-178

ISSN 0212-7016

Donostia: Eusko Ikaskuntza

Gizon xehe batek idatzitako autobiografia modukoa, hauxe da Bizente Barandiaranen “Zartu gabe ezin bizi”. Aita Zavala tolosarrak zuzentzen duen Auspoa liburu-sailean eman da argitara. Eta ez da lehenengo aldia liburu-sorta horretan baserritar peto baten autobiografia azaltzen dena, jakina.

Komeni litzateke aditzera ematea, hasteko, Bizente Barandiaran nor dugun. Mundu honetara 1917an etorri zen, Itsasondoko Urki bailaran, eta bere bizian makina bat ofizio ezagututakoa dugu: txikitan artzai, gaztetan ikazkin, gero herriko harrobi-zuloan, handik Beasaingo CAFera eta Herrerako Ramón Vizcaíno-ra... harik eta jubilatuta arte. Orain Altzan bizi da.

Bertsolari ere bada Bizente. Oso berandu hala ere, berrogeita hamar urte zituela, kantatu zuen lehenengoz jendaurrean. Gaztetan jardun zen franko, lagunartean, eta harrezkero inoiz ahaztu ez. Orain urte asko ez dela, Euskadi Irratiak antolatutako herrien arteko “Fernando Amezketarra” bertsolari-lehiaketan ere hartu zuen parte.

Liburu honetan gutxi dira bertsoak, oso gutxi. Hogeira ere ez dira iritsiko. Eskertzekoa da, ez Bizente bertsolari txarra delako, bere prosa benetan egokia delako baizik.

Zer du bada gizon honen prosak? Dena eta ezer ez, aldi berean. Naturala baita, batere-batere artifizio gabea, bai kontatzeko moduan bai sintaxi lexiko kontutan ere; neologismo, purismo eta kultismoetatik urruti baino urrutiago. Eta batere konplejurik gabe. Ajola kaundikoa azken puntu hau.

Egona naiz behin denbora luzean hizketan Bizenterekin eta berak ahoa zabaltzea orduko konturatu nintzen baduela kontalari sena, galanta gainera. Hari magnetofonia jarri eta ikusiko genuke zein gertu dagoen bere jarduna idatzizko prosa honetatik. Adierazi behar duena adierazteko berezko abilezia baitu hizketan ere, atzera eta aurrera eta are gutxiago estrapuzoka hasi barik. Eta hain zuzen ere, hauxe da liburuak dakarrena: haren ahozko jarduna ia-ia hitzez hitz paperera aldatuta.

Hona liburua nola hasten den, arestian esandakoaren lekuko: “Orain artean lanean jardun naiz batean eta bestean. Irurogei ta amaika urte bete ditut eta nekatu naiz.

Orain, nundik nora ibili naizen, liburu batean jartzea pentsatu det. Utsegite batzuk egitea nere ezjakintasunez, ez arritu. Irakurtzen duanak barkatuko al dit”.

Eskolarik ezak ez du kulturarik eza esan nahi. Umetan eskola-ordua gutxi sartu bazituen ere, eta batere koskortu bezain pronto etxeko lanetan hasi arren, bere burua ederki asko jantzi duen gizona dugu Bizente. Liburua irakurriko duenak ikustea besterik ez dauka zer nolako prepezio eta apainduraz azaltzen dituen gaztetan ezagututako hiru ofizio: nekazaritza eta artzantza eta ikazkintza.

Liburuko parte nahiko haundi bat Bizenteren familia eta auzoko azalpenek hartzen dituzte. Zenbaitetan, gehiegizko xehetasunetan hasten da autoreak, jende askoren izenak ere sartu nahian, horrelakoetan liburuak interes piska bat galtzen duelarik.

Gero, bukaera aldera, kronika moduko bi kapitulu eskaintzen dizkigu, bata Beizamako hilketari buruzkoa eta bestea Idiazabalen duela ehun urte baino dezente gehiago gertatutako beste hilketa batena, itzai batena hain zuzen.

Beizamako hilketari buruzkoa batez ere, kronika aparta da. Bizentek gertutik ezagutu bait zituen arrazoirik gabe auzitara eramandako familiak. Orduan bereratzituzte besterik ez zeuzkan Bizentek, baino ondo gogoan dauka hala ere gertatua eta zer nolako astinaldia eman zion gertakizun hark Urkiko bailarari, hangoak bait ziren kulparik gabe juiziora eramandako batzu.

Oroimena oso haundia dauka autoreak. Orain berrogeita hamar urteko kontuak atzo gertatuak balira bezalaxe dauka gogoan. Alde horretatik asko irabazten du liburuak dokumentu sozial mailan.

Autobiografia izanda ere, bailara baten erretratotzat hartu behar da gehiago liburu hau. Ez bait da inondik inora obra intimista. Ez digu Bizentek bere barruko gazi-gozoak erabat azaldu nahi izan, baina horren aldera ederki erakutsi digu zein izan den bere mundualdiko bizimoduak. Ze bizimodu? Nekoso askoa, hala laburbil liteke.

Gustora irakurtzen da obra hau. Ederki korritzen duen prosa da eta kontua franko dakar. Bukatzeko, puska tiki bat erakusgarri gisa:

“Bi edo hiru egun elurretan pasatu ezker, asten zozoak ere jaten billa, bestetan billatzen etzutelako. Zepoak jarri eta ikulluko leiotik begira egoten giñan bi anaiok, azaltzen ote zan txorien artean zozoren bat:

— Bazetorrek zepoaren ondora!

Saltoka an iritzi oi zan; eta arto-alea ikusten zuanean, arek zekarren gosearekin, laister tiratzen zion golpea. Ikusten genduanean erori zala zepoan, laister joaten giñan, ikulluko atetik atera eta beraren billa.

Beste iru edo lau bat txori arrapatzen bagenituan, arratsaldean aiek lumatu eta amari ematen genizkion, gauean patatekin jartzeko.

Etxe aurrean bagenduan, garai batean ogia erretzeko labea ornen zan. Labea autsi eta legorpe egoten zan. Eskutakada bat arto bat bota eta guk galbaia esaten genion erderaz ‘criba’ esaten zaionari, eta ura an jartzen gandu. Makilla txiki bat, puntan sardea zuana, aren azpian, alderki batetik altxatuta. Makilla oni soka bat lotzen genion, atariko atearren barrendik tiratzeko, txoria arto jatera joaten zanean.

Baiña an kulparik gabeak sartzen ziran, malizi gutxi zutenak etortzen ziran: txantxangorria eta kaxkabeltxa. Galbaiaren azpian eskua sartu eta arrapatzen genituan.

Sukaldetik kuartoetara zegoan pasilloan botatzen genituan libre. An ibiltzen ziran, iñor sartzen giñanean, batera eta bestera larrituta. Elurra zegoan artean, an egoten ziran, pasilloko leioan zeuden tapen gaiñean, gauean bertan lo egiñez, kanpoko elur artean baiño epelago.

Baiña nola ziran malizi gabeak, txantxangorriak eta kaxkabeltxak pena ematen ziguten aiei ezer egitea. Elurra kentzen zuanean, leioa iriki ta an bialtzen genituan, kanpoan bizi zitezen”.

Félix Ibargutxi